# I ARABAKO FORU ALDUNDIA

## Administrazio Xedapenak

*Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak*

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**4608**

**30/2010 FORU DEKRETUA, ekainaren 29ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, aldatu egiten da abenduaren 29ko 84/2009 Foru Dekretua, 2010erako lehentasunezko mezenasgo jarduerak zehaztu zituena.**

Irabazteko Asmorik Gabeko Erakundeen Zerga Araubideari eta Mezenasgorako Zerga Pizgarriei buruzko uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauak sektore pribatuak lehentasunezko mezenasgo jarduera eta programen finantzaketan izango duen parte hartzea arautu zuen.

Hain zuzen ere, foru arau horretako 29. artikuluko 1. idatz zatiak arautzen du Arabako Foru Aldundiak zehaztuko duela ekitaldi bakoitzeko lehentasunezko mezenasgo jardueren edo programen zerrenda foru arau horretan bertan adierazitako interes orokorreko helburuen esparruan.

Abenduaren 29ko 84/2009 Foru Dekretuaren bidez, zehaztu egin ziren 2010erako lehentasunezko mezenasgo jarduerak.

Foru Dekretu hori onartu ondoren, Gasteizko Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionaleko Gune Elkartuak egindako jarduerak eta Sociedad Epsilon Euskadi SL-k "World Series by Renault" txapelketan parte hartzeko kirolaren alorrean egindako jarduerak 2010erako lehentasunezko mezenasgo jarduera gisa aitortuak izateko eskaera egin zen.

Gasteizko Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionaleko Gune Elkartuak eta Sociedad Epsilon Euskadi SL-k aurkeztutako agiriak aztertu dira eta 2010erako lehentasunezko mezenasgo jarduerak zehazten dituen abenduaren 29ko 84/2009 Foru Dekretuan txertatuak izan behar dutela erabaki da.

Arabako Foru Aldundiaren Aholku Batzordearen Araudi Organikoak 3. artikuluko hirugarren paragrafoan xedatutakoari jarraituz, aipatutako batzordearen txostena ez da nahitaezkoa.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena aztertu da.

Hori dela bide, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hauxe

XEDATU DUT

Artikulu bakarra. 2010erako lehentasunezko mezenasgo jarduerak zehazten dituen abenduaren 29ko 84/2009 Foru Dekretuan honako aldaketa hauek txertatzea:

Bat. 2010erako lehentasunezko mezenasgo jarduerak zehazten dituen abenduaren 29ko 84/2009 Foru Dekretuaren 2. artikuluaren Bat idatz zatian, d) letran hain zuzen ere, 16. zenbakia gehituko da; hona hemen testua:

"16. Gasteizko Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionaleko Gune Elkartua"

Bi. 2010erako lehentasunezko mezenasgo jarduerak zehazten dituen abenduaren 29ko 84/2009 Foru Dekretuaren 2. artikuluaren Bat idatz zatian, i) letran hain zuzen ere, 3. zenbakia gehituko da; hona hemen testua:

"3. Sociedad Epsilon Euskadi SL-ri World Series By Renault FR3.5 txapelketan eta World Series By Renault FR2.0 Eurocup txapelketan parte hartzeagatik emandako kopuruak."

# DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA I

## Disposiciones Administrativas

*Decretos Forales del Consejo de Diputados*

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

**4608**

**DECRETO FORAL 30/2010, del Consejo de Diputados de 29 de junio, que modifica el Decreto Foral 84/2009, de 29 de diciembre, que determinó las actividades prioritarias de mecenazgo para el ejercicio 2010.**

La Norma Foral 16/2004, de 12 de julio, de Régimen Fiscal de las Entidades sin Fines Lucrativos e Incentivos Fiscales al Mecenazgo establece el marco normativo sobre la participación del sector privado en la financiación de actividades o programas prioritarias de mecenazgo.

En concreto, el apartado 1 del artículo 29 de la citada Norma Foral señala que la Diputación Foral de Álava establecerá, para cada ejercicio, una relación de actividades o programas prioritarios de mecenazgo en el ámbito de los fines de interés general a que se refiere dicha Norma Foral.

Mediante Decreto Foral 84/2009, de 29 de diciembre, se determina las actividades prioritarias de mecenazgo para el ejercicio 2010.

Posteriormente a la aprobación del citado Decreto Foral se ha solicitado el reconocimiento como actividades prioritarias de mecenazgo para el ejercicio 2010, las desempeñadas por el Centro Asociado de Vitoria-Gasteiz a la Universidad Nacional de Educación a Distancia y las desarrolladas en el ámbito deportivo por la Sociedad Epsilon Euskadi, S.L., para la participación en la competición "World Series By Renault".

Vista la documentación aportada tanto por el Centro Asociado de Vitoria-Gasteiz a la Universidad Nacional de Educación a Distancia, como por la Sociedad Epsilon Euskadi, S.L., se considera que deben ser incluidas en el Decreto Foral 84/2009, de 29 de diciembre, por el que se determina las actividades prioritarias de mecenazgo para el ejercicio 2010.

Según lo previsto en el párrafo tercero del artículo 3 del Reglamento Orgánico de la Comisión Consultiva de la Administración Foral de Álava, no es preceptivo el informe de la citada Comisión.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy,

DISPONGO

Artículo Único. Se introducen las siguientes modificaciones en el Decreto Foral 84/2009, de 29 de diciembre, que determina las actividades prioritarias de mecenazgo para el ejercicio 2010.

Uno. Se añade el número 16 a la letra d) del apartado Uno del artículo 2 del Decreto Foral 84/2009, de 29 de diciembre, que determina las actividades prioritarias de mecenazgo para el ejercicio 2010, con la siguiente redacción:

"16. Centro Asociado de Vitoria-Gasteiz a la Universidad Nacional de Educación a Distancia."

Dos. Se añade el número 3 a la letra i) del apartado Uno del artículo 2 del Decreto Foral 84/2009, de 29 de diciembre, que determina las actividades prioritarias de mecenazgo para el ejercicio 2010, con la siguiente redacción:

"3. Las cantidades entregadas a la Sociedad Epsilon Euskadi, S.L., para la participación en la competición World Series By Renault, FR3.5 y en la competición World Series By Renault, FR2.0 Eurocup."

AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2010ean sortuko ditu ondorioak.

Gasteiz, 2010eko ekainaren 29a.– Diputatu Nagusia, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Foru Diputatua, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.– Ogasun Zuzendaria, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOTHA y surtirá efectos para el año 2010.

Vitoria-Gasteiz, 29 de junio de 2010.– Diputado General, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.– Director de Hacienda, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

## NEKAZARITZA SAILA

4631

**32/2010 FORU DEKRETUA, ekainaren 29ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, onartu egiten da 2010erako nekazaritza, abeltzaintza eta baso arloko azokak antolatu eta ospatzeko dirulaguntzak arautzen dituen deialdia.**

Foru Dekretua, nekazaritza eta abeltzaintzako azokak antolatzeko eta egiteko dirulaguntzei buruzko arauak onesten dituena.

Diputatuen Kontseiluaren irailaren 9ko 83/2008 Foru Dekretuak araudi bateratu eta objektibo bat ezarri zuen, nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzako azokak antolatzeak eragindako gastuen zati bat finantzatzeko laguntzak emateko.

Igarotako denbora, aurreko araudia aplikatzean lortutako esperientzia, eta finantza-baliabideen bolumenean izandako aldaketak direla eta, komenigarria da araudia aldatzea, Araban egiten diren azoken ezaugarriei eta berezitasunei hobeto erantzuteko.

Aurreko xedapena indargabetzen duen xedapen honek nekazaritza eta abeltzaintzako azokak eta erakusketak antolatzeko, egiteko eta parte hartzeko laguntzak eta laguntza horiek emateko oinarriak ezartzen ditu.

Nekazaritzako foru diputatu andreak proposatuta egin diren aginduzko txostenak aztertu ondoren, eta Diputatuen Kontseiluak gaur egin duen bilkuran erabakia hartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT

Lehena.- Nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzako azokak, erakusketak eta bestelako ekitaldiak antolatzeko eta egiteko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezartzea eta onestea honekin batera doan eranskineko artikuluen arabera.

Xedapen gehigarria

Bakarra.- Nekazaritzako foru diputatuari ahalmena ematen zaio Foru Dekretu honetan ezarritakoa garatzeko eta betearazteko beharrezko arauak emateko.

Xedapen iragankorrak

Bat.- Nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzako azokak antolatzeko laguntzen deialdia onestea 2010eko ekitaldirako.

Bi.- 2010. urterako, eskabideak aurkezteko hamabost egun baliodun izango dira lehen adierazitako eran, Dekretu hau ALHAOn sartzen den egunetik aurrera.

Hiru.- Epearen barruan eskatutako eskaerei, dirulaguntza jaso dezaketenei erantzuteko, Finantza eta Aurrekontuen Zuzendaritzak kreditua gordeko du, Arabako Foru Aldundiak 2010eko ekitaldirako indarrean duen partiden zenbatekoengatik eta haien kargura. Hauek dira: 40.1.00.41.00.431.99.01 “Nekazaritza eta abeltzaintzako azokak–Erakundeak” xedapen erreferentzia 10.1.10.105.3115/000, zenbatekoa 45.000,00 euros eta 40.1.00.41.00.461.00.04 “Nekazaritzako eta abeltzaintzako azokak- Ekoizleen elkarteak”, xedapen erreferentzia 10.1.10.105.3116/000, zenbatekoa 10.000,00 euros.

Lau.- Kasuan kasuko Foru Aginduaren bidez eta deialdiko ebazpena eman aurretik, bi aurrekontu partiden zenbatekoak berriz banatu ahal izango dira, sustatzaile talde bakoitzari egoki dakizkiokeen laguntzen arabera.

## DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA

4631

**DECRETO FORAL 32/2010, del Consejo de Diputados de 29 de junio, que aprueba la regulación de las ayudas para la organización y celebración de Ferias de carácter agrícola, ganadero y forestal y su convocatoria para el año 2010.**

Decreto Foral que aprueba la regulación de las ayudas para la organización y celebración de Ferias de carácter agrícola, ganadero y forestal y su convocatoria para el año 2010.

El Decreto Foral 83/2008, del Consejo de Diputados de 9 de setiembre, establecía una regulación unitaria y objetiva para la concesión de ayudas destinadas a financiar en parte los gastos derivados de la organización de ferias de carácter agrícola, ganadero y forestal.

El tiempo transcurrido, la experiencia derivada de la aplicación de la normativa anterior, y los cambios en el volumen de recursos financieros, aconsejan proceder a una modificación de la normativa reguladora con el fin de responder de mejor forma a las características y peculiaridades de las ferias que se celebran en Álava.

Esta disposición que deroga la anterior, establece las ayudas destinadas a la organización, celebración y participación en ferias y exhibiciones de carácter agrícola, ganadero y forestal y las bases de concesión de las mismas.

Vistos los informes preceptivos en su virtud a propuesta de la Diputada Foral de Agricultura y previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada por el mismo en el día de hoy

DISPONGO

Primero.- Establecer y aprobar las Bases reguladoras de las ayudas destinadas a la organización y celebración de ferias, exposiciones y otros eventos de carácter agrícola, ganadero y forestal, según articulado que figura en anexo adjunto.

Disposición Adicional

Única.- Se faculta a la Diputada Foral de Agricultura para dictar las normas necesarias para el desarrollo y ejecución de lo dispuesto en el presente Decreto Foral.

Disposiciones Transitorias

Una.- Aprobar la convocatoria de ayudas para la organización de ferias agrícolas, ganaderas y forestales para el ejercicio 2010.

Dos.- Para el año 2010 el plazo de presentación de solicitudes, en la forma antes mencionada, será de quince días hábiles desde el día siguiente al de la inclusión del presente Decreto en el BOTHA.

Tres.- Que por la Dirección de Finanzas y Presupuestos para atender las solicitudes que cursadas en plazo sean susceptibles de subvención, se reserve crédito, por los importes y con cargo a las partidas del vigente Presupuesto de Gastos de la Diputación Foral de Álava para el ejercicio 2010 que a continuación se indican: 40.1.00.41.00.431.99.01 “Ferias Agroganaderas – Entidades” con referencia de contraído 10.1.10.105.3115/000, por importe de 45.000,00 euros y 40.1.00.41.00.461.00.04 “Ferias Agroganaderas - Asociación Productores”, con referencia de contraído 10.1.10.105.3116/000, por importe de 10.000,00 euros.

Cuatro.- Mediante la correspondiente Orden Foral y previamente a la resolución de la convocatoria, podrá realizarse la redistribución de los importes de ambas partidas presupuestarias en función de las ayudas que a cada grupo de promotores pudiera corresponder.